

IRUNGO EMAKUMEEN ETXEA DISEINATZEKO PARTAIDETZA-PROZESUAREN 2. FASEA

EMAKUMEEN GOGOETA-GUNEAREN 5. LANSAIOA:

Eguna: 2022-3-12

Ordua: 10:00-14:00

Lekua: Palmera Montero gunea

Partaideak: 20 emakume eta Talde Motorreko kideak

Gai-zerrenda:

1. Prozesua kokatzea
2. Etxearen egunerokotasuna
3. Etxearen izena
4. Kudeaketa eredia eta egiturak
5. Hurrengo pausoak gogoratu eta lan-saioa baloratzea

Akta:

1. PROZESUA KOKATZEA:

Saioarekin hasteko orain arte egindako bideari errepassoa egin diogu.

Prozesuaren **3 helburu nagusiak gogora ekarri ditugu:**

1

Irungo Emakumeen Etxearen ezaugarri nagusiak zehaztea udalerriko emakumeekin, eragile feministekin eta emakumeen elkarteekin elkarlanean.

2


Emakumeen Etxean gauzatuko den **tokiko erakunde publikoaren eta emakumeen nahiz eragile sozialen arteko elkarlanerako baldintzak sortzea**, gutxieneko konfiantza-giro bat sortuz.

3

Irungo emakumeen, eragile feministen eta emakumeen elkarten arteko **harremanak landu eta sareak eraikitzea**, elkarlanerako baldintzak sortuz.

**Zehaztasun gehiagorekin dago jasoa abenduaren 11ko aktan.*

Bestetik, aurreko saioan zehaztutako **prozesuaren printzipioak edo joko-arauak** gogoratu ditugu:



Ondoren, azaroaren 13an erabakitakoa ekarri dugu gogora. **Irungo Emakumeen Etxearen Helburuak:**

- “Gu” elkartzeko -inklusiotik-
- Ahalduntze indibidual eta kolektiborako
- Irun feminista sustatzeko
- Irungo mugimendu feminista indartzeko
- Matxismoari aurre egiteko

Etxearen **ezinbesteko ezaugarriak**, edo “nolako etxea nahi dugun”:



Etxea norentzat dagoen zuzendua:


1. **Emakumeentzat zentzu zabalean:** espazio ez-mixtoa baina hobe emakumeentzat esatea, baina ez bitarrentzat ere izango da espazioa.
2. **Mugimendu feministarentzat:** Topaleku eta baliabide, transfeminismoarentzat barne.
3. **Berdintasunaren aldeko elkarreentzat.**
4. **Malgutasuna eta irekitasuna** (ekintza zehatzei lotuta, gizonen edo beste kolektibo batzuren sarrera ulertzen da -ONG, sindikatuak...-)

**Zehaztasun gehiagorekin dago jasoa azaroaren 13ko aktan.*

Abenduaren 11an egin genuen saioan **zerbitzuez eta jardueraz** aritu ginen alde batetik. Jarduera eta ekintza mota asko proposatu ziren, baita zerbitzu eta talde iraunkorrak ere. Hala ere, zehaztasunera jaisteko, lehentasunak espazioa irekitzen zenean landuko zirela aipatu zen.

- **Zerbitzuak:** Hitzorduen bidez. Psikologikoa, juridikoa, sexologikoa, laborala...
- **Talde iraunkorrak:** Emakume migratuen taldea, emakume gazteen taldea, ...
- **Jabekuntza eskolak:** Ezagutza eta kultura feministari lotutako saioak, izen emateen bidez kudeatzen direnak. Ikastaro motzak eta luzeak.
- **Elkarte eta mugimendu feministarako baliabideak:** Bilera gelak, armairuak, ...

Espazioari dagokionez, LZB arkitekto taldearekin eta Parean elkartearekin lokalaren espazioaren manaketa eta distribuzioa hobetzeko aukera izan genuen. Honela geratu da azkenean:



**Ikusi abenduaren 11ko akta.*

Urtarrileko gogoeta saioa bertan behera geratu zen COVID19k ekarritako egoera zela eta. **Otsailaren 12an Emakumeen parte hartzea etxean eta Etxearen kudeaketaren** inguruan hitz egin genuen. Bertan ondorio hauetara iritsi ginen:



Zertarako parte hartu nahi dut Irungo Emakumeon Etxean?

Sareak egiteko, partekatzeko, topatzeko. (Emakumeak, eta herrian dauden eragile feministak) (adin eta jatorri ezberdinekoekin topatzeko)	13
Irun Feminista egiteko, herrian eragiteko, gure eskubideengatik borrokatzeko, etorkizun hobea egiteko	8
Nire ekarpena egiteko Etxeari, nire ikuspegia emateko.	7
Ikasteko, nire burua formatzeko, nire pentsamenduak irekitzeko, feministago egiteko.	7
Mugimendu feministaren presentziarekin, espazioa seguruagoa baita. Espazio atsegina egiteko.	6
Parte hartuz, ahalduntzen garelako, norbanako eta kolektibo moduan.	5
Benetako laguntza izateko beharra duten emakumeentzat, batez ere indarkeria pairatzen dutenentzat	4
Ondo pasatzeko, disfrutatzeko	2
Jarduerak proposatzeko gaitasuna izateko	1
Baliabideak berma daitezen ziurtatzeko	1



Hurrengo galderari taldeka erantzun diegu. Zein funtzio izango ditu Udalak eta zein emakumeek eta emakume taldeek?

UDALAK:	EMAKUMEAK
Baliabide teknikoak, aurrekontua, giza baliabideak, zerbitzuak eta materiala jarriko ditu.	Denbora, inplikazioa, errealitatetik gertu egotearen ezagutza, feminismoaren ikuspegia, gardentasuna bermatzea, proiektua beteko denaren jarraipena egitea.

Horrez gain, **Irungo Emakumeen Etxearen kudeaketaren ereduaz** aritu ginen. Ondorio hauetara iritsi ginen:

1. **Emakumeen parte hartzea** aurreikusten duen **espazio bat** egon behar da etxean.
2. **Udalak parte hartu** du Etxean, baliabide guztiak jarriko baititu.
3. Udala eta Emakumeen artean **egitura lotesle bat** nahi dugu, hautazkoa izango ez dena, “arau” batean edo nonbaiten jaso. **Ofiziala**.
4. Emakumeen Etxean parte hartzen duten erabiltzaileek eta Irungo mugimendu feministak parte hartuko duen **espazio asanbleario bat** egitea nahi da; **anitza eta erraza parte hartzeko**.
5. **Elkarte bat** beharrezkoa da “**ofizialtasuna emateko**” **udalarekin izango dugun espazio lotesleri**. Lokala erreserba gabe erabili ahal izatea ere erraztuko luke.

Azken bi puntuetan egon da, ordea, zailtasun handiena: batzuek asanbladari ematen diote garrantzia eta besteek elkarteari.

**Ikusi otsailaren 12ko akta.*

Horregatik, Martxoaren 12ko saio honetan Kudeaketa organoaz hitz egin dugu sakonago, baita Emakumeen Etxearen izenaz eta egunerokotasunaz ere.

2. EGUNEROKOTASUNA

Gai zailenak bukaerarako uzteko, egunerokotasunaz hitz egiten hasi dugu saioa.

Miren Echeveste zinegotziak, udalak aurreikusten ditun **Giza Baliabideak** aurreratu dizkigu, espazioa ze ordutatik ze ordutara ireki daitekeen modu erreal batean pentsa dezagun.

Emakumeen Etxeak izango dituen Giza Baliabideak: 2 pertsona jardun osoan.

- Emakume eta gizonen berdintasunerako erdi mailako teknikari bat ezagutza espezifikoarekin jardun osoan.
- Teknikari laguntzaile bat jardun osoan: administrari postua, emakume eta gizonen berdintasunerako ezagutzarekin.

Lokala itxita dagoenean, elkarteek erabili ahal izateko aukera:

Horrez gain, Emakume Etxea Elkarteak atea ireki eta ixteko eskubide zuzena luke lokala itxita dagoen momentuan. Gainontzeko emakume taldeek lokala erabili ahal izateko aukera espazioak erreserbatu beharko lituzkete.




Talde txikietan jarri gara eztabaidatzeko **Irungo Etxeak zein ordutegi** izan beharko lukeen eztabaidatzeko.

Hainbat hausnarketa atera dira eztabaida taldeetatik:

1. **Etxea irekitzearen beharra antolatuta ez dauden emakumeei harrera egiteko da.** Izan ere, antolatuta daudenek, elkarteen bidez erabili ahalko dute eraikina.
2. Emakumeen Etxea, berez, ez da indarkeria matxista pairatu duten emakumeei atenditzeko zerbitzu bat. Zerbitzu horiek Gizarte Politiketara daude, ez daude Berdintasun Zerbitzuan edo Emakumeen Etxeetan. **Emakumeen Etxeetara, ordea, kasu asko iritsiko dira, eta informazioa eta orientazio egokia ematea izango da Etxearen funtzioa.** Aholkularitza psikologiko eta juridikoen zerbitzuek ere aholkularitza eta informazio profesionala ematea izaten dute helburu, ez kudeaketa juridikoa edo terapia egitea. Gizarte Zerbitzuekin koordinazio ona izatea da helburua, eta gehienez, hasierako akonpainamendua egitea izaten da Emakumeen Etxeen eta bertako zerbitzuen funtzioa.
3. **Astelehenetik ostiralera irekitzeko** beharra identifikatu da, **baina larunbat eta igandeetan jarduerak antolatzea ere garrantzitsua ikusten da**, emakume guztiek ezin baitute astean zehar parte hartu.
4. Ordutegiak definitzean, pentsatu behar dugu goizean etxetik ateratzen zarenean eskura izatea Etxeko harrera, baina baita asteburuetan ere. **Emakume profil ezberdinei erantzun ahal izateko.**
5. **Bi langileek** lanpostu ezberdinak izango dituzte, eta beraz, **funtzio ezberdinak**. Beraz, ezingo zaie berdina eskatu biei.
6. Bi langileek **barne lanerako orduak** beharko dituzte: koordinazioa dela eta kudeaketa dela.

Gauzak horrela, 3 ordutegi ezberdin proposatu dira. Hala ere, argitu dugu langileen ordutegia eta baldintzak definitzea Irungo Udalari dagokiola, Giza Baliabideen zerbitzuari. Beraz, honakoa kontuan hartzeko proposamena izango da, eta erabakia Udalaren esku egongo da.

PROPOSAMENAK:



*10:00-13:30 / 17:00-20:00 Astelehenetik ostiralera. Larunbatetan
10:00-14:00*

9:00-20:00 Astelehenetik ostiralera. Larunbatak 10:00-14:00

*9:00-20:00 Astelehenetik ostiralera edo 9:00-20:00 asteartetik
larunbatera.*

3. ETXEAREN IZENA

Izen ezberdinak proposatu ditugu saioaren hasieran.

- ✚ *Julia Iruretagoiena*
- ✚ *Irungo Emakumeak*
- ✚ *Irungo Lamien Etxea / Casa de las Lámias de Irun*
- ✚ *La Casa de las mujeres de Irun / Irungo Emakumeen Etxea*
- ✚ *.....Feminista*
- ✚ *Naturarekin lotura duen hitzen bat: Abaraska, edo horrelakoa.*
- ✚ *Kontzeptu bat. Ez oso izen luzea eta siglarik ere ez.*

Atsedeenaren aurretik, izena aukeratzeko garaian mugarik jarriko zenuketen galdetu dugu. Muga esan nahi genuen, arrazista ez den izena izatea edo horrelako zerbait. Benetako mugak. Mugak baino, bakoitzak beren guztien arabera ezaugarriak idatzi ditu. Kontuan hartzeko balioko ditugu, baina guzietan nahia ezingo da bete, kontrajarriak baitira iritzi batzuk.

- *Feminismo hitza txertatzea*
- *Kontzeptua izatea, siglak ez*
- *Izen propioak ez. Emakumeen izenak ez. (Beste emakume batzuk kanpo geratuko lirateke)*
- *Norbanakoekin baino sareekin harreman gehiago duen izena.*
- *Ez izatea izen luzea.*
- *Irun izena azaltzea*
- *Irungo Emakumeen Etxea. Ulergarria da, beste etxeei erreferentzia. Emakume hitza du, Irun hitza du eta Etxea, espazio goxoa.*
- *Ez erabiltzea morea edo izen berezirik, edo Emakume hitza bakarrik.*
- *Irun ez jartzea.*
- *Transfeminismoak lekua izatea*
- *Euskaraz izatea, edo euskal kulturari erreferentzia egitea*
- *Irungo emakume erreferente bat izatea*
- *Ulergarria izatea, izena entzutean zer den ulertuko duguna.*

Beraz, mugak baino, izenaren ezaugarriak atera dira erronda honetan.


Apirilaren 5a bitarte prozesuan izena eman duten ia 80 partaideei bidaliko zaie gonbitea **izen proposamenak egiteko**, emailaz Berdintasun Zerbitzura.

Apirilaren 9an 3 izen aukeratuko ditugu, eta Irungo emakumeen artean izena emateko aukera zabalduko da (ez bitarrei ere).

4. IRUNGO EMAKUMEEN ETXEEN KUDEAKETA EGITURAK

Otsaileko saioan kudeaketa ereduaren inguruan egin genituen hausnarketan eta eztabaiden ostean, Elhuyarretik **kudeaketa egitura proposamen bat ekarri dugu**. Saiatu gara barne hartzen atera ziren ikuspegi guztiak. Nahiz eta jakin ezingo dela izan denen gustukoa, bakoitzaren ikuspegia jaso izana espero dugu. Kontuan hartu behar dugu adostasunetara iristeko denok mugitu beharko garela pixka bat lekuz.

KUDEAKETA-EGITURA PROPOSAMENAK PROPUESTA PARA LA GESTIÓN y ESTRUCTURAS



Udalaren aldean daude Berdintasunerako zinegotzia, berdintasun teknikaria eta Etxeko dinamizatzailea. Udalaren partaide hauek Mugimendu feministarekin eta Etxeko erabiltzaileekin koordinatu beharko dira Etxearen kudeaketarako.

Etxeko erabiltzaileen eta Mugimendu Feminista elkar koordinatzeko asanblada bat egongo da. Asanblada hori malgua, anitza eta irekia izango da. Horrez gain, Elkartea ere beharko da erabiltzaileak eta Mugimendu feministak Udalarengana ofizialki erabakiak eta negoziatzeko gaitasuna eramateko. Elkartea eta asanblada lotuak egongo dira. Asanblada bakarra eta elkarte bakarra egongo dira eta **Estatutuek arautuko dute**.

Estatutu horiek zer jaso behar duten guztiok eroso sentitzeko izango da hurrengo saioko eztabaida nagusia, apirilaren 9an.

Bitartean, Udala eta emakumeak elkarren artean koordinatzeko bi organo aurreikusi ditugu.

Lehena, **kudeaketa organoa**, negoziazio politikorako espazioa izango da.

- **Osaera:** Udaleko 3 ordezkarik eta Elkartearen 3 ordezkarik parte hartuko dute bertan.
- **Funtzioa:** Etxeak izango dituen aurrekontuak aurkeztea, zerbitzu berriak adostea, ordutegi aldaketak, baliabideak, Hitzarmenik nahi bada, bertan adostea.
- **Maiztasuna:** Urtean bi aldiz gutxi gora behera. Gai zehatzik balego, maizago elkartu liteke.

Bestetik, egunerokotasuneko kontuak kudeatzeko, **koordinazio teknikoa** egongo da.

- **Osaera:** *Etxeko dinamizatzaila eta asanbladan dauden lantaldeetako ordezkariak (Kudeaketa Organora joaten diren ordezkariak ere).*
- **Funtzioa:** *Hilabetero edo hiru hilabeterako programak antolatzea, ikastaro berriak proposatzea, inaugurazio edo urteroko festa antolatzea, espazioaren erabilpena antolatzea...*
- **Maiztasuna:** *Hilabetero gutxi gora behera. Beharraren arabera.*

Asanblada eta Elkartearen inguruan ere jaso ditugu ekarpenak, nahiz eta kontsentsu gutxiago egon.

Emakumeen Etxeko Asanblada:

- **Osaera:** *Irungo Emakumeen Etxea sustatu nahi duten emakume guztiak, (ez bitarrak ere), norbanakoen izenean. Kargu politikoek, kargua duten bitartean abstenitu beharko lirateke parte hartzeaz, talde giroa ez distorsionatzeko. Etxea irekitzen denean, erabiltzaileek ere aukera izango dute parte hartzeko asanbladan. Doakoa eta librea izango da parte hartzea.*
- **Funtzioa:** **Koordinazio teknikoa** erabaki beharreko kontuak argitzea, edo informazioa ematea koordinazio taldean aurreraturako lanen inguruan (programazioa, ikastaro berriak, urteko jaialdia, edo espazioarekin izandako arazoak...) Bestetik, **Kudeaketa Organora** eramane beharreko iritziak erabakitzeko (Hitzarmenaren inguruan, aurrekontuak, baliabideak,...), **barne antolamendu** mailan, Elkartearen Estatutuak adosteko eta ordezkariak aukeratzeko Kudeaketa Organorako.
- **Maiztasuna:** *Batzuek hileroko ikusten dute eta beste batzuek 6 hilean behin. Deialdia Elkarrekin egingo luke, emakumeek, hau da, ez da udal dinamizatzailaren funtzioa izango asanbladak deitzea.*

Emakumeen Etxeko Elkartea- bere ordezkariak-:

- **Osaera:** *Asanbladako partaideak lirateke elkarteko kideak, goian aipatutako guztiak. Atal honetan Elkartearen Ordezkarien funtzioaz hitz egitea zentzu gehiago du. Hiru ordezkariak asanbladaren aniztasuna ordezkatu beharko lukete.*
- **Funtzioa:** *Elkartearen ordezkarien funtzioak: Asanbladan erabakitakoa eramateko Kudeaketa Organora. Eta Kudeaketa Organoan ematen den informazioa Asanbladara eramatea.*
- **Maiztasuna:** *Ordezkariak hautatzeko maiztasuna eta modua. Rotatiboa izan beharko da, aldatuz joateko partaideak.*

Lau egitura hauekin funtzionatuko dugula erabaki dugu. Baina lau egitura hauek nola antolatuko diren oraindik ez da erabaki, aktan jasotakoa proposamena da. Hurrengo saioan, Elkartea eta Asanblada nola antolatu erabakiko dugu Estatutuen bidez. Eta Kudeaketa Organoa eta Koordinazio Teknikoa Udal Jarraibideetan jasoa geratuko da.

Elkartea eratzeko, eta bertako asanblada eta Estatutuak sortzeko, deialdia zabalagoa izan beharko lukeela erabaki da taldean. Horregatik, Berdintasun Zerbitzutik prozesuen izena eman zuten 80 emakumeei, bai eta sare zabalagoari, izena eman eta hurrengo

saiotik aurrera parte hartzeko deialdia egingo zaie. Helburua izango da Elkarte, Asanblada eta Estatutuak jende gehiagorekin batera adostea.

Hala ere, gogorazi dugu adostasunetara iristeko ez dela nahikoa izango aholkularitza baten laguntza. Partaide bakoitzak malgutasuna erakutsi beharko du adostasunetara iristeko, inoiz ez baita %100 gure gustukoa izango emaitza, eta denok mugitu beharko baikara lekuz erosotasun minimo batetara iristeko.

5. LANSAIOA BALORATU eta HURRENGO PAUSOAK:

Gure hurrengo hitzordua gogoratu dugu: **apirilaren 9an.**

Beran landuko ditugun gaiak izango dira:

1. Saioaren gaiak: Prozesuan erabakitakoa bermatzeko dokumentuak adostea. Emakumeak aktibatzen dituzten Elkartearen estatutuak eta udalaren jarraibideak.
2. Etxearentzako 3 izen aukeratzea

Lan-saioa baloratzeko **balorazio-fitxa** bete dute partaideek eta hau izan da **emaitza**:

ALDERDIAK	1	2	3	4	5	Oharrak
BALORAZIOA, ORO HAR			1	3	8	
LANDUTAKO GAIK EGOKIAK IZAN DIRA?			1	3	8	
METODOLOGIA EGOKIA IZAN DA?		1		2	8	
AUKERA IZAN DUT EKARPENA EGITEKO ETA BESTEEN IKUSPEGIA EZAGUTZEKO?				4	8	
LANEAN JARRAITZEKO MOTIBAZIOA			1	5	6	

Beste ezer nabarmendu nahi duzu?

- *Muchas gracias por vuestro esfuerzo y paciencia*
- *Batzuetan zertaz ari garen jakitea kontatzen zait*
- *Me ha parecido complicado*

EMAKUMEEN GOGOETA-GUNEKO PARTAIDEAK:



Ana Calzado



Maritxu San Pedro



Clara Lopez



Lucia Elizondo



Pilar Gracenea



Irene Kastezubi



Maria Valiente



Nahia Errazkin



Rosa Valiente



Karmele Tolosa



Estitxu Urbina



Luz Nuñez



Junkal Valiente



Maite Vergara



Marian Garcia



Maddalen Irastorza



Maite Irastorza



Maribel Castelló



Mari Mar Fernandez



Maite Cano

Proiektuko arduradun politiko teknikoak



Miren Echeveste
 (arduradun politikoa)



Koldo Zabala
 (arduradun teknikoa)

Interpretea



Amaia Imaz

Proiektuko bideratzaileak (Elhuyar)



Joxepa Bornaetxea



Eli Etxabeguren